



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA  
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza  
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental  
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

**Ebazpena, 2021eko azaroaren 12koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Aretxabaletako S-1b industria-sektorearen plan partzialaren irismen-dokumentua.**

## AURREKARIAK

2021eko abuztuaren 26an, Aretxabaletako Udalak eskabidea aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean, Aretxabaletako S-1b industria-sektorearen plan partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua eman zedin, bat etorrita Euskadiko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientearen dago jasota. Era berean, izapidea hasiko zela jakinarazi zitzaion Aretxabaletako Udalari.

Halaber, espedientearen jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Indarreko legerian txostenak jasotzeko ezarritako epea igarota, eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak behar beste judizio-elementu bazituela ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua arabera.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013, abenduaren 9koaren) 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskadiko ingurumena Babesteko Lege Orokorren (3/1998, otsailaren 27koaren) 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.



Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko eremua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzorua erabilerari.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen du osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ikusi: 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskadiko ingurumena babesteko lege orokorra; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.**- Aretxabaletako S-1b industria-sektorearen plan partzialaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua formulatzea, ingurumen-ondorioetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

#### **1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena**

Aretxabaletako udalerriko hirigintza-antolamendua «Aretxabaletako Arau Subsidiarioen Berrikuspena» dokumentuan (aurrerantzean, arau subsidiarioak) jasota dago. Dokumentu hori behin betiko onartu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2000ko maiatzaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez, eta araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta dago (2001eko maiatzaren 21eko GAO, 96. zk.).

Arau Subsidiarioek industria-erabilerako (I-1) bi sektore berri ezartzen dituzte gaur egungo hiri-bilbearen iparraldean, lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dagoen lurzorian: S-1a eta S-1b sektoreak. 1-a sektorea gauzatuta eta finkatuta dago dagoeneko, eta orain gauza bera egin nahi da 1-b sektorearekin.

Aretxabaletako S-1b Industriarako Lurzoru Urbanizagarriaren plan partzialak 1b sektorearen antolamendu xehatua zehaztea du helburu, indarrean dauden arau subsidiarioek jarduera ekonomikoen ezarpenerako zehazten dituzten hirigintza-parametroekin bat etorriz, bertan zehazten baitira tokiko sistemetara eta berdeguneetara bideratutako lurzatiak eta gainazalak. Plan partzialaren helburua da, halaber, «by-pass» bide berri bat sortzea, Aramaiora bertatik joateko, Aretxabaletako erdigunea zeharkatu beharrik gabe

Proposatutako plangintzak lurzati eraikigarri bat bakarrik finkatzen du; hasiera batean, pabiloi handi bat jarriko da bertan, eta etorkizunean handitu egin ahal izango da, sektorean ezarri nahi duen Ekide Group enpresa taldearen beharretara egokituz.

Eremua antolatzeko alde zuzeneko helburuekin bat etorriz –bide-sareari eta espazio libreei dagokienez–, ibaiarekiko bide paralelo berri bat egitea aurreikusten da. Berdeguneak tarte horretan ezarriko dira eta, horrela, herri-bilbearen eta Deba ibaiaren arteko lotura hobetuko da. Gainera, udalerriko gidalerroei jarraikiz, bidegorri bat ezartzea aurreikusten da, eta bidegorri horrek iparraldetik hegoaldera zeharkatuko du eremua, berdeguneetatik.

Plan partzialak eremuaren mugak doitzen ditu inguru fisikora eta aurreikusitako erabilera egokitzeko irizpideen arabera. Horretarako, bi lurzati txertatu dira (1.058,74 eta 572,32 m<sup>2</sup>-koak) sektoreko landa-lurzati handiago batetik, eta, beraz, 1.586,06 m<sup>2</sup> lurzoru urbanizaezin birsailkatu dira guztira.

Eremuaren mendebaldean, industria-eraikinak barne hartuko dituzten bi lurzati antolatu dira. Lurzati bat Ekide Taldearen ekimen pribatuari dagokio eta bestea, berriz, lagapenaren % 15ari dagokion udal-lurzati industrialari. Planak bi industria-lurzati antolatzen ditu (37.537,34 m<sup>2</sup> guztira), eta 23.928,69 m<sup>2</sup>-ko oinplanoko okupazioa gehienez ere. Eraikuntzaren profilak industria-jarduerarako bi solairu ditu sestra gainean eta beste bat sestra azpian. Jarduera nagusiari atxikitako bulegoak, laborategiak eta instalazioak sestra gaineko hiru solairutan eta sestra azpiko solairu batean garatu ahal izango dira, eta, gainera, atikoan beste solairu bat egin ahal izango da.

Sektorearen hego-ekialdeko muturrean «by-pass» bide bat prestatuko da GI-3920 errepedearen (gaur egun Aretxabaletako herrigunetik igarotzen dena) bi punturen artean, herrigunean ibilgailuen zirkulazioa murrizteko. Bide berri hori gaur egun sektore horretan Deba ibaia zeharkatzen duen GI-3920 errepedearen zubitik gertu dagoen biribilgune berri batetik abiatuko da. Gero, sektorearen barruan, Deba ibaiarekiko paraleloa izango da, zuzkidura-berdeguneekin bereizita harengandik, eta hegoalderantz jarraituko du, berriz ere GI-3020 errepedearekin bat egin arte.

Proposatutako garapenerako ezinbestekoa izango da sektorearen barruan dagoen eta AP-1 errepedearen hegoaldeko hegaletatik datozen jariatze-uren zati bat bideratzeko hodiak jartzea; bestalde, hori ez da beharrezkoa izango azken zatian, proposatutako berdeguneen inguruan, bere horretan utziko baita jariatze-uren ibilgua. Industria-lurzati pribatuko eraikina garatzeko eraikuntza-proiektuan jasota egon beharko dira neurriak eta justifikazio hidraulikoa

#### Alternatibak

0 alternatiba edo jarduketarik ezaren alternatiba, eta zonakatzeko berari erantzuten dioten garapen-alternatibak planteatzen dira; horietan, proposatutako pabiloi berrien lerroakurak bakarrik aldatzen dira.

Beste alternatiba batzuk planteatzeko ezintasuna justifikatu da, lurzatiaren konfigurazioa bera, ezarri beharreko enpresaren beharrik (gehiago handitzeko aukera ematen duen pabiloi handi bat) eta by-pass bidea egin beharra (ibaiarekiko atzeratzeak errespetatuz) direla eta. Baldintzatzaile horiek guztiak mugatu egiten dute eremua, bertan industria-jarduerarako lurzati bat ezar litekeen arren (sektorearen mendebalde eta iparraldeko zatian).



Proposatutako garapen-alternatibari esker, eremu artifizializatu bat berrerabili ahal izango dela uste da. Horrela, landa-lurzoru berria okupatzea saihestu eta, oro har, sektoreak itxura antolatuagoa izango luke, eta eremuan dauden intereseko ingurumen-balio nagusiak kontserbatzen lagunduko litzateke, hala nola Deba ibaiaren ibaiertza. Hori guztia eremua garatzeko baldintzatzaileekin bat etorri, eta betiere ingurumenean eragin daitezkeen kalteak minimizatuz.

## **2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak**

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, ingurumena babesteko, kontuan hartuko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak.

Zehazki, Plana gidatzeko, garapen jasangarriko printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Lurzorua zentzuz eta era intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, eta balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala ez urbanizatzea.
- b) Hiri-segregazioa eta -sakabanatzea eta mugikortasun induzitua saihestea; hala, irisgarritasuna lagunduko da lurzoru-erabilerak eta mugikortasuna modu integratuan planifikatuz eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzorua gutxiago zigilatzea, haren erabilera jasangarriagoaren bidez, era horretan ahal beste eginkizun atxiki ditzan.
- d) Habitata eta espezieak, natura-ingurumena eta lotura ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- e) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- f) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- h) Baliabide naturalak modu jasangarrian kontsumitzea sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Energia-aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea apaltzeko eta aldaketara egokitzeko neurriak sartuz.
- l) Arrisku naturalak gutxitzea.

## **3. Eremu geografikoa eta ingurumen-gune garrantzitsuak**

S-1b sektoreak 50.325 m<sup>2</sup> ditu eta Aretxabaletako herrigunearen iparraldean dago; AP-1 autobidearen hegalekin muga egiten du iparraldean eta mendebaldean, GI-3920 (Arrasate-Aramaio) eskualde-errepidearekin ipar-mendebaldean, eta Deba ibaiaren ertzarekin hego-ekialdean. Oro har, sektoreak behearazko malda txiki bat du hegoaldetik iparraldera. Ekialdetik mendebalderako noranzkoan handiagoa da malda, ibaitik mendebaldera; izan ere, mendi-hegala zutagoa da gune horretan, malda handiagokoa.

Planak barne hartzen duen eremua industria-lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dago, eta hiri-periferiaren ezaugarriak ditu; itxura aldatua du, eta degradatua ere bai gune batzuetan. Zehazki, sektorearen iparraldeko erdian aldaketa handiak egin ziren AP-1 autobidea eraikitze lanetan, lur-mugimendu handiak egin baitziren. Gaur egun, belar-landareak daude eta larre gisa erabiltzen dira lursailak. Bestalde, sektorearen hegoaldeko erdiaren zati bat hainbat material pilatzeko erabiltzen da, eta bertan nabarmenak dira errodadura-zantzuak; horrenbestez, ez du ia landaredirik. Arrazoi horiek direla-eta, lurzoruak jada artifizializatu egin direla eta jatorrizko gaitasun agrologikoa galdu dutela uste da. Eremuaren gainerako zatian, hostozabalen heskai txikiak identifikatu dira Deba ibaiaren ertzean, baita baratzeen eremu txiki bat (mendebaldeko hegalean) eta koniferoen masa txikiak ere.

Azterketa-eremua ez dago Natura-ondarearen eta biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legean eta EAeko natura babesteko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan ezarritako eremu babestuetako ezeinen barnean. Era berean, sektorean ez da identifikatu Batasunaren intereseko habitatik, Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan sartuta dagoen espezierik, edo Eremu Babestuen Erregistroan edo Igarobide Ekologikoen Sarean sartuta dagoen eremurik.

Eremuaren barruan jariatze-uren ibilgu txiki bat dago (150 metro inguruan), guztira 483 metro inguruko luzera duena, eta AP-1 autobidearen mendebaldeko hegalean duena jatorria. Jariatze-uren zati bat autobidearen azpitik igarotzen da, hodiedtan barrena; gero, lur gainetik jarraitzen du eremuko lursailetan zehar, lursailen erdialdeko metro batzuetan izan ezik, non lurpetik baitoa. GI-3920 errepidea ere lurpetik zeharkatzen du, zuzenean Deba ibaira isuri arte. Puntu batzuetan itxura aldatua du, lurperatu egin delako eta aprobetxamendurako egitura txikiak daudelako, puntu jakin batzuetan ibilgua geldiarazten duten hesiak, kasu.

Eremuan dauden intereseko ingurumen-balioak Deba ibaia eta ibaiertzeko haltzadi kantauriarra (sektorearen ekialdeko muga) dira bereziki, baina baita eremua zeharkatzen duen jariatze-uren ibilgu txikia eta hari lotutako espezie autoktonoen heskaia ere.

Faunari dagokionez, esan behar da azterketa-eremua kobazuloko saguzarraren (*Miniopterus schreibersii*) interes bereziko eremuan sartuta dagoela. Saguzarra kobazuloetan bizi ohi denez, eta sektorean ez dagoenez gordeleku egokirik espeziearentzat, ez da aurreikusten eremuan horrelakorik dagoenik. Bestalde, Deba ibaia bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) Lehenasunezko Banaketa Eremu gisa identifikatuta dago; espezie hori galzorian dagoen espezie gisa katalogatuta dago eta kontserbatzeko kudeaketa-plan bat du. Hala ere, kontuan hartuta sektorea Aretxabaletako herribilbearen ondoan dagoela eta eremuaren inguruan Deba ibaiak landaredi-orka estu bat duela, ez da bisoiaren presentziarik aurreikusten azterketa-eremuaren ondoan dagoen Deba ibaiaren tartean. Sektorean ez da intereseko fauna-espezierik identifikatu. Bestalde, eremuan flora inbaditzailearen espezie batzuk hauteman dira (*Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana* eta *Fallopia japonica*).

Adierazi behar da sektorea bera eta Aretxabaletako udalerraren zati handi bat Interes Geologikoko Lekuan (IGL) daudela, «Aretxabaletako eta Eskoriatzako iturburu sulfuroso» gisa identifikatuta (84. kodea), eta interes hidrogeologiko handia duela. IGL horrek 1.940 ha inguru ditu eta Urkuluko urtegiaren mendebaldean dauden iturburu sulfurosoak hartzen ditu barne, Aretxabaleta eta Eskoriatza udalerrietan. Hala ere, IGL horretan identifikatutako iturburuetatik bakar bat ere ez dago azterketa-eremuan edo haren inguruan.

Paisaiari dagokionez, eremuak balio «baxua» du, inpaktu negatiboen presentzia dela eta, hala nola errepideak (AP-1, GI-3920 eta GI-627), linea elektrikoak eta hedagailuak.

Kultura-ondareari dagokionez, Planaren eremuan ez da identifikatu katalogatutako elementurik. Aretxabaletako Mugarri Gurutzea da sektoretik hurbilen dagoen elementu kulturala; Deba ibaiaren

eskuineko ertzean dago, GI-3920 errepideko zubiaren ondoan. Monumentuen kategorian kalifikatutako kultura-ondarea da, XVI. mendean eraikia eta estilo errenazentistakoa.

Eremuko soinu-egoerari dagokionez, AP-1, GI-3920 eta GI-627 errepideen bide-azpiegiturak dira azterketa-eremuari gehien eragiten dioten foku akustikoak. Jarduera-eremua AP-1 errepidearen eraginpeko gunean dago. Gaur egun, soinu-egoera ona da eta ez dira gairiditzen eremuan aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak.

Azkenik, adierazi behar da sektorean nahiko homogeenak diren 5 ingurumen-unitate mota identifikatu direla. Honako hauek dira azalera handienak: eraldatutako lursailak (% 36,1), zapaldutako lursailak (% 28,9), nekazaritzarako hegalak (% 17,8), basogintzarako hegalak (% 12,8) eta espezie autoktonoen heskaiak (% 4,4).

#### 4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

Planaren xede den eremuan ez da hauteman jarduketak egiteko eremu desegokirik, betiere aplikatu beharreko ingurumenari buruzko araudia betetzen bada, batik bat, arlo hauetan: sistema hidrologikoaren eta jabari publiko hidraulikoaren zaintza; uholde-arriskua; naturaren, landarediaren eta intereseko faunaren kontserbazioa; espezie aloktono inbaditzaileak; kultura-ondarea, eta kutsadura akustikoa.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, adierazi behar da, oro har, eremuak ez duela garapena baldintzatzen duen nabarmentzeko moduko ingurumen-arriskurik. Eremuan ez dago lurzorua kutsa dezaketen jarduerak jasaten dituen edo jasan dituen lurzorurik. Uholde-arriskuari dagokionez, sektoretik hurbilen dagoen Deba ibaiaren zatia ez da uholde-arrisku handiko eremutzat hartzen; dena den, uholdeak jasateko arriskua duten eremuak identifikatu dira ibarrean. Sektorearen ipar-ekialdean, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholdeak jasan ditzaketen eremuek GI-3920 errepidearen zati handi bat barne hartzen dute; hala ere, eremuko lursailak kota handiagoan daudenez, uholde-orbanak ez dira bertan sartzen. Hego-ekialdean, Deba ibaiaren uholde-orbana ibaiaren eskuineko ertzeko lursailak hedatzen da. Ezkerraldeko ibaiertzean, uholdeak jasan ditzaketen eremuak puntualki baino ez dira sartzen eremuan. Izan ere, sektorean 500 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanari dagozkion 645 m<sup>2</sup> inguru identifikatu dira, 100 urteko orbanari dagozkion 166 m<sup>2</sup> eta 10 urteko orbanari dagozkion 8 m<sup>2</sup>; horiek eremuaren azalera osoaren % 1,3, % 0,3 eta % 0,02 hartzen dute, hurrenez hurren. Eremu marjinalak dira, eta, edozein kasutan, antolamenduak espazio libreetarako proposatzen dituen lursailak.

#### 5. Egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra

Jarraian, ingurumen-alderdi garrantzitsuenak zein diren laburbiltzen da –ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenetan agertzen dira alderdi horiek–:

**Natura-ondareari** dagokionez, honako neurri hauek proposatu dira:

- Kontuan izanik Planaren eremua *Aretxabaletako eta Eskoriatzako iturburu sulfurosoen* IGLan dagoela, bertan aurreko IGLan identifikatutako iturburu sulfurosorik ez dagoela adierazi arren, egin beharreko ingurumen-azterketa estrategikoaren esparruan xehetasun gehiagorekin aztertu beharko litzateke alderdi hori; eta, beharrezkoa izanez gero, eremuaren azterketa hidrogeologiko espezifiko bat egin beharko litzateke.

- Ezinbestekotzat jotzen da proposatutako antolamendu xehatua berrikustea, Deba ibaiaren ertzari leku gehiago emateko eta leheneratzeko aukera emateko. Horretarako, honako alderdi hauek baloratzea gomendatzen da:
  - Bidegorria eta aparkalekuen lerroa errepidearen beste aldera mugitzea, ibaiaren inguruko espazio libreak zabaltzeko.
  - Espazio libreen irtenbide naturalizatuen bidezko tratamenduei lehentasuna ematea, Deba ibaiaren funtzionaltasun ekologikoa indartzeko helburuarekin. Era berean, ingurumen-azterketa estrategikoak ibaia leheneratzeko proposamen bat egin lezake eremu horretan.

**Kultura-ondareari** dagokionez, Planaren eremuan ez da kalterik hauteman.

**Larrialdiei eta meteorologiari** dagokionez, honako hau adierazi behar da:

- Uholde-arriskua:

Biribilgune berriaren zati bat 500 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanean dago. Jabari publiko hidraulikoari, harekin lotutako babes-eremuei eta uholde-arriskua duten eremuei eragindako kalteei dagokionez, behar bezala bete beharko da Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan xedatutakoa, bereziki 40.4 artikulua («Erabilera-mugak uholde-arriskua duten zaintza-eremuetan») eta 44. artikulua («Urbanizatu beharreko eremu berriak eta komunikazio-bideak drainatzea»), baita EAEko Ibaiek eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala ere, eremuaren uholde-arriskua ez handitzeko.

Egin beharreko lanetatik eratorritako drainatze-lan guztiak diseinatzeko, kasuan kasuko errepikatze-emariekin lotutako prezipitazioak izan behar dira kontuan. EAEko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren Plubiometria Azterketa kontuan hartuta, eremuan 250 eta 275 mm artekoak dira, eguneko, prezipitazio-isomaximoak, 500 urteko errepikatze-denboran.

- Arrisku sismikoa:

Udalerrian ez da beharrezkoa Arrisku Sismikorako Larrialdi Plana egitea, baina eraikuntza berrietan sismoen aurkako Eraikuntza Araua hartuko da kontuan: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02), irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartua.

- Baso-suteen arriskua:

Eremuaren hego-mendebaldean, basoko sute-arrisku kartografiatua duen gune bat dago, eta gune hori kontuan izan beharko da Plan Partzialaren xede diren lanak egiten diren bitartean.

- Arrisku teknologikoak:

Planaren eremua AP-1 autobidearen 100 metroko afekzio-eremuan dago, eta ez du kartografiatutako arriskurik. Horri lotuta, kontuan har daitezke Gai arriskutsuekin gertatzen diren istripuetan esku hartzeko fitxak (2001), Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak argitaratuak, baita Emergency Response Guidebook (DOT) fitxak ere, gai arriskutsuen jarioari dagokionez.

## 6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa



## eta irismena

Aretxabaletako S-1b sektorearen plan partzialak S-1b sektorearen antolamendu zehatua ezartzen du, indarrean dauden arau subsidiarioetan zehaztutako egiturazko hirigintza-parametroekin bat etorriz. Beraz, kasu honetan egiten den ingurumen-ebaluazioa aurreikusitako jarduketa- eta antolamendu-proposamenaren ondorio espezifikoetan oinarrituko da.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. Eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatuko diren apartatuek eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako Planaren deskribapena
  - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
  - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
  - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
  - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
  - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

### 6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

#### 6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, IAEak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Planaren elaborazioa egitean, ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, bai eta Planari aplikatu behar zaizkion ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespene-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren.



c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz Planaren gainerik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, bai eta plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko Planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, zehaztuta zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuta.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Arrasate-Bergara Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (Debagoiena).
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021); bereziki uholde-arriskuko zonei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan bisoi europarra (*Mustela lutreola*) kudeatzeko plana.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- Aretxabaletako Plangintzako Arau Subsidiarioak.

#### 6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren eta Planak gehitzen dituen zehaztapenekin lotuta dauden ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du Azterketak, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarri buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko ditu Azterketak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean ahalik eta kalte gutxien sortzeko gidalerroak ezartzeko.



c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako Planeko ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna edo proiektu horiek ingurumen-ebaluzioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, *pdf* eta *shape* formatuetan.

### 6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba edo esku ez hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

Hala, bidegorria eta aparkalekuen lerroa aurreikusitako errepidearen beste aldera mugitzeko aukera aztertu beharko da, betiere ibaiertzari leku gehiago emateko eta hura leheneratu ahal izateko.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

### **6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea**

Azterketak deskribatu beharko du zein diren ingurumenak gaur egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak, Planak eragindako eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren ingurunerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak izan ditzaketen guneetara.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da,

eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

#### 6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, korridore ekologikoak, eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, kalteberatasunari eta egungo presioei eta mehatxuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotu egin daitezkeen adieraziko da.

Ilido horretan, zehatz-mehatz deskribatu beharko da garapenak zer landarediri eragingo dion, batez ere Deba ibaiaren ertzeko landarediari dagokionez eta bideratu gabeko tarteetako ubide txikiko landarediari dagokionez. Azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionalitate ekologikoa zehaztuko dira. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspegitik interesgarria den elementurik badagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Iturri kutsagarriak dagoen identifikatuko da, bai eta lurzorua kutsa zezaketen jarduerak izan dituen lurzorurik dagoen.

Hala dagokionean, aipatu ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes-maila zehaztuko dira, hala badagokio. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes eman dion arau-xedapenaren erreferentzia aipatuko da.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den gunerik dagoen eta ukituta gerta daitekeen biztanleria, etab.

#### 6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarritzat hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko eremuan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko



jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluziozko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, bai eta eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira Planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu Azterketak.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arriskuguneak, gune hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu ahal duten beste alderdi batzuk dira jabari hidrauliko publikoaren babesa, uholde-arriskua eta Euskal Autonomia Erkidegoko hotskutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua aplikatzearen ondoriozko mugaketekin zerikusia dutenak. Alderdi horiek azterketan jorratuko dira.

### 6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondoreak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen Planean bilduriko ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta horien ezaugarriak deskribatzeko, aztertuko da zer-nolako interakzioa dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitekeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako efektuak, efektu metagarriak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki aztertu beharko ditu Planak txertatutako jarduketa-proposamen berriei lotutako ekintzen ingurumen-eraginak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren efektu metatzaile eta sinergikoak.

Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer ondorio dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Planean horrela deskribatutako ondorio bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Bereziki, Deba ibaiaren eta haren jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremuaren gaineko eragina ebaluatuko da, baita bertan dagoen ubidearen gaineko eragina ere, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da. Gainera, Planak Deba ibaiari lotutako faunan dituen ondorioak aztertuko dira, kontuan hartuta bisoi europarraren lehentasunezko banaketa-eremutzat hartuta dagoela 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren arabera,

Gipuzkoako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* bisoi europarraren (Linnaeus, 1761) Kudeaketa Plana onartzen duena.

- Era berean, Planak proposatutako antolamenduak eremuan dagoen landaredi autoktonoan dituen ondorioen ezaugarriak zehaztu eta baloratuko dira; bereziki Deba ibaiari lotutako ibaiertzeko landaredian dituenak. Hala badagokio, intereseko habitata edo intereseko aleak identifikatuko dira.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertuko du Planak zer eragin izan ditzakeen uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko plan hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua), baita EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean adierazitakoa ere. Era berean, Planaren 44. artikuluan adierazitakoa izan beharko da kontuan, alegia «Urbanizatu beharreko eremu berriak eta komunikazio-bideak drainatzea».
- Hala, eta kontuan izanik Planaren eremua Aretxabaletako eta Eskoriatzako iturburu sulfurosoen IGLan sartuta dagoela, bertan garatzeak izan ditzakeen kalteak aztertuko dira eta, horrez gain, eremuaren azterketa hidrogeologiko espezifiko bat egin behar den baloratuko da.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak, Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen diren zehaztapenei jarraikiz eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.

b. Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Ondorioen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
  - Naturari, kulturari eta paisaiari dagokienez ezaugarri berezirik ote dagoen.
  - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
  - Planak ingurumen-arriskuak zein heinetaraino sortu edo areagotu ditzakeen.

Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, ondorio horien iragarpenean dagoen ziurgabetasun-maila adieraziko da.

c. Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

d. Hautemandako ekintza horrek Planeko zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan sartzea eskatzen duen adieraziko da, eta kasu bakoitzean eragindako planifikazio-tresna zehaztuko da.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

#### **6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak**



a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den Azterketaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio nabarmenik sortuko, Planeko ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak eta natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoan aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta Azterketaren 6.3 apartatuan identifikatu diren eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi diren ondorioekin lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Ur-ingurunea babesteko neurriak: obra-fasean, lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea ez murrizteko neurriak proposatuko dira, kontuan hartuta eremuaren hego-ekialdean Deba ibaia eta ubidea daudela.
- Hala badagokio, neurri prebentibo, zuzentzaile edo konpentsatzaile espezifikoak proposatu beharko dira, intereseko landarediaren gaineko eragina saihesteko edo arintzeko eta natura-ondarearen galera garbirik ez dagoela ziurtatzeko (zero balantzea edo, bestela, aurreikusitako lehengoratzeeekin, positiboa).
- «Ingurumena eta paisaia lehengoratzeko plan» bat idatzi beharko da, Plan Partzialaren ondorio guztietarako (aurrekontua barne). Paisaia eta ingurumena lehengoratzeko eta integratzeko neurriak irizpide hauek kontuan hartuta definituko dira:
  - Espazio libreetan irtenbide naturalizatuei emango zaie lehentasuna, Deba ibaiaren funtzionaltasun ekologikoa indartze aldera.
  - Ibaiertzeko eremuan, lorategiak jartzea saihestuko da, eta ingurumena lehengoratzeko hobetsiko da, edo bertako landare-formazioak errespetatzea eta, hala badagokio, landareztatzea, zuhaitz eta zuhaixken espezie autoktonoak erabiliz, haltzadi kantauriar motakoak.
- Era berean, aztergai dagoen eremuan flora aloktono inbaditzailea dagoenez eta ibaien inguruetakoa obretan mota horretako espezieak erraz zabaltzen direnez, horiek desagerrarazteko eta kontrolatzeko neurrien proposamen zehatz bat egin beharko da, Planaren ondorioz espezie horiek sortzen duten ingurumen-arazo larria –kokalekutat hartzen dituzten ekosistemak eraldatu eta sinplifikatzen dituzte– okerragotuko ez dela bermatzeko, eta, ahal izanez gero, espazio libreetan eta berdeguneetan egungoa baino egoera ekologiko hobea lortu ahal izateko, bertan dagoen flora inbaditzailea kenduta.
- Deba ibaia bisoi europarraren Lehentasunezko Banaketa Eremua den heinean, espeziea kudeatzeko planaren arabera (*Foru Agindua, 2004ko maiatzaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Mustela lutreola bisoi europarra (Linnaeus, 1761) kudeatzeko plana onartzen duena*), nahitaezkoa izango da Gipuzkoko Foru Aldundiak horren inguruko txosten bat egitea, sektorea urbanizatzeko egokitzen josten dituen baldintzak zehaztuz.
- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusiak kontuan hartuta.
- Oro har, bermatu beharko da betetzen dela EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean (2015-2021) ezarritakoa. Hartara, saihestu beharko dira, bai ibaien

ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuena, eta sustatuko da, ahal denean, horiek lehengoratzea, biziberritzea eta hobetzea.

- Uholde-arriskuari dagokionez, Planak indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia bete beharko du, uholde-arriskuko zaintza-eremuko erabileren mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua), bai eta EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planaren araudia ere (E.2 apartatua).
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-txosten estrategikoak barnean hartuko ditu hainbat neurri, planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arinduko dutenak eta hartara egokitzea bideratuko dutenak. Xede horrekin, lhobek egindako honako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. *Udalsarea 21 lan-koaderno*a eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

c. Adieraziko da Planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da Planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

### **6.5. Ingurumena zaintzeko programa**

a. Azterketan, ingurumena zaintzeko programa bat garatuko da, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, bai eta –kasu bakoitzean– datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere.

## **6.6. Ingurumen-laburpena**

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean eragin nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatueta jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

## **6.7. Laburpen ez-teknikoa**

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horrekin batera, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko da; edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

## **7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak**

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, organoak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen (administrazio publiko ukituei eta interesdunei kontsultatzeari buruzkoaren) 22. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Honako hauek izan dira:

- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Uraren Euskal Agentzia. Eusko Jaurlaritza.
- Mendietako eta Natura Ingurunekeko Zuzendaritza Nagusia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.





- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkarte.
- Eguzki (Eguzkizaleak Aisialdirako Elkarte).
- Itsas Enara Ornitologia Elkarte.
- Haritzalde.

## 8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu\\_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf)

**Bigarrena.-** Ebazpen hau Aretxabaletako Udalari jakinaraztea.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 12a.

**Javier Agirre Orcajo**

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria